



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

057f5043563445a92c4530796eacebd5a93508a28cecb5288a21520492b338a

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO MARTXOAREN 31N EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2022.03.31

Tolosako Udaletxean, 2022ko martxoaren hogeita hamarrean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeke, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2022ko otsailaren 23ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Berrestea 2021eko azaroaren 23ko Gobernu Batzarraren erabakia: Uzturre Asistentzia Guneak eskainiko duen Adinekoen Eguneko Arretarako zerbitzuaren prezioa onartzea.
3. Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen tarifak eguneratzea.
4. Onartzea turismo oroigarriak saltzeko prezio publikoak.
5. Onartzea Oriaburu eraikineko areto nagusia erabiltzeko baimenaren tasa.
6. Onartzea Tolosako udalerrian arlo sozioedukatihoan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea, eta hasiera ematea lizitazioari.
7. Hasierako onarpena ematea Oriaburuko areto nagusia erabiltzeko Erregelamenduari.
8. Onartzea Tolosa Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan(GGLA) integratzeko prozesuan beste udalerrri baten sarrerak eraginda sorturiko baldintza aldaketak.
9. Alkatetza dekretu hauen berri ematea:
2022/213 Herritarren Batzorde Informatiboko lehendakariaren izendapena.
10. Behin betiko onartu izanaren berri ematea: Tolosako Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren 2. fasearen 1. atala.
11. Behin betiko onartu izanaren berri ematea: Tolosako Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko programa. 2022. urteko plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda.
12. Mendebaldeko Saharari buruzko mozioa.
13. Ukrainari buruzko mozioak.
14. Mugi-tarifa sistemari buruzko mozioa.
15. Galderak eta eskaerak.



Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA:

2022KO OTSAILAREN 23KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. BERRESTEA 2021EKO AZAROAREN 23KO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIA: UZTURRE ASISTENTZIA GUNEAK ESKAINIKO DUEN ADINEKOEN EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUAREN PREZIOA ONARTZEA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko martxoaren 23ko irizpena

1. 2021eko azaroaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrak eguneko arreta zerbitzuaren prezio hauek onartu zituen:

- A modalitatea: SAIOAK EGUNERO ---> 0,25 € saioko (gehienez 10 € hilean)
- B modalitatea: ASTEAN BI SAIO ---> 0,75 € saioko (gehienez 6 € hilean)
- C modalitatea: ASTEAN SAIO BAT ---> 1 € saioko (gehienez 4 € hilean)

2. Akats bat zegoen kalkuluan, A modalitatean saioak 0,50 € dira-eta saioko; hogei saio gehienez 10 €; beraz, honela izan behar zuen:

- A modalitatea: SAIOAK EGUNERO ---> 0,50 € saioko (gehienez 10 € hilean)
- B modalitatea: ASTEAN BI SAIO ---> 0,75 € saioko (gehienez 6 € hilean)
- C modalitatea: ASTEAN SAIO BAT ---> 1 € saioko (gehienez 4 € hilean)

3. Osoko bilkura da prezioak onartzeko organo eskuduna.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin dute, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Kristina Pelaez, Ander Figuerido. Aho batez onartu da.

Hori dela eta, batzordeak:

DIKTAMINATU DU

LEHENENGOA: Akats zuzenketa onartzea eta prezioak honela uztea:

- A modalitatea: SAIOAK EGUNERO ---> 0,50 € saioko (gehienez 10 € hilean).
- B modalitatea: ASTEAN BI SAIO ---> 0,75 € saioko (gehienez 6 € hilean).
- C modalitatea: ASTEAN SAIO BAT ---> 1 € saioko (gehienez 4 € hilean).



BIGARRENA: Osoko bilkuran berrestea prezio horiek.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du berrestea 2021eko azaroaren 23ko Gobernu batzarraren erabakia, hau da, onartzea Uzturre Asistentzia Guneak eskainiko duen adinekoen eguneko arretarako zerbitzuaren prezioa.

3. UZTURRE ASISTENTZIA GUNEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN TARIFAK EGUNERATZEA.

Lehenik eta behin, Tolosako Udaleko EAJ/PNV, EHBILDU eta PSE/EE udal taldeak proposatzen duen zuzenketa hau aurkeztu da:

Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen tarifak eguneratzeari buruzko EMENDAKINA

EAJ-PNV, EHBILDU ETA PSE-PSOE alderdiek **EMENDAKINA** aurkeztu diote 2022ko martxoaren 31n egingo den osoko bilkuraren gai-zerrendako 3. puntuari, hain zuzen, **“Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen tarifak eguneratzea”** dioen puntuari.

Honela, 2. atalean hau jarri beharrian

Bigarrena. - Hurrengo urteetan prezio horiek eguneratzeko erabiliko den adierazlea finkatzea:

Euskadiko KPIaren urteko akumulatua, urtarrilean argitaratzen dena.

Prezioen eguneratzea urtero egingo da, lehen hiruhilekoan, eta erabakia osoko bilkurak onartu ondorengo hilabetearen lehen egunetik aplikatuko da; alegia, apirilaren 1etik aurrera eguneratutako prezioak aplikatzea izango da helburu.

Honako hau jartzea proposatzen da:



Bigarrena.- Uzturre zentroan eskaintzen diren zerbitzuen prezioak eguneratzeari dagokionez, prozedura hastea Udal honen interpretazio-irizpidea ezartzeko. Prozedura horretan, kontratistari entzunaldia emango zaio.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du *Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen tarifak eguneratzeari buruzko EMENDAKINA*.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko martxoaren 23ko irizpena, onartutako zuzenketarekin.

2018ko abenduaren 11ko datarekin eta 9541 zenbakiarekin aurkeztu zuen Uzturre Asistentzia Guneak eskaera Tolosako Udalaren erregistroan, eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak eguneratzeko. Horrekin batera, argi eta garbi adierazi zuen bere idatzian honako eskaera hau:

“(…)

1. Que para las futuras actualizaciones de las mencionadas tarifas, que siempre se deberán actualizar en el primer mes del año correspondiente, únicamente se tenga en cuenta la subida del IPC del País Vasco.

(…)”

Hain zuzen ere, zerbitzua sortu zenetik «de facto» adostu zen emakidadunaren eta Udalaren artean urteroko prezio eguneraketa Euskadiko KPlaren igoeraren arabera egitea. Dena den, desadostasuna sortu zen bi aldeen artean urte bateko KPIa negatiboan aplikatu ez izanaren ondoren, eta horren guztiaren ondorioz, 2015, 2016, 2017 eta 2018an Tolosako Udalak ezin izan zuen gauzatu prezioak eguneratzeko prozesua, akordio faltagatik eta informazio faltagatik. Era berean, aipatu behar da 2017. urtean Udalak baimendu gabeko igoera aplikatu zuela Uzturre Asistentzia Guneak.

Beraz, Uzturre Asistentzia Gunearen espedientean prezioaren inguruan jasotakoak aztertuta, 2019ko uztailaren 23an honako proposamen hau egin zuen Gizarte Zerbitzuetako Sailak:



“(…)

Behin zerbitzua abian jarri zenetik aurrera, hainbat erabaki hartu dira prezioen eguneraketaren inguruan. Esaterako, 2012ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran erabaki zen apartamentuen eta etxe komunitarioaren ekarpen baremoak eta 2012rako prezioak onartzea.

2015. urtean, ordea, Uzturre Asistentzia Guneak egindako eguneraketa proposamena ez zuen onartu Tolosako Udalak, planteatutako igoerak ez zituela hitzartutako irizpideak jarraitzen baloratu zelako, eta ordutik aurrera ez da inolako erabakirik hartu prezio hauen inguruan.

Horretarako, erantsita doan taulan agertzen dira gai honen inguruan Uzturre Asistentzia Guneak helarazi duen prezioen eboluzioa. Horren harira, aipatu behar da 2014. urtez geroztik prezioak ez direla eguneratu.

Dena den, Uzturre Asistentzia Guneak jarraitu du bere zerbitzua eskaintzen, eta Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentuan jaso dugun informazioa kontuan izanda, esan daiteke eskainitako zerbitzua gizarte ongizatearen ikuspuntutik beharrezkoa dela, eta beraz, eta herritarren interes orokorrekoa.

Beraz, 2018ko abenduaren 11ko datarekin Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako eskaera aztertuta, honen bidez proposatzen dut aztertu dezala Kontuhartzailletza Departamentuak prezioen gaia, hain zuzen ere kontratua hitzartu zenetik gaur egunera arteko prezio horien eboluzioa zein izan behar zuen zehaztuz, eta 2019. urtean aplikatu beharreko prezioak zeintzuk diren proposatuz.

Era berean, uste dut egokia litzatekeela hurrengo urteetarako eguneratzeko irizpide objektibo bakarraren hautua adostea emakidadunarekin, azken urte hauetan sortutako zailtasunak ekiditearren, eta horretarako, proposatzen dut Kontuhartzailletzak proposatu dezala horretarako egokiena izan daitekeen irizpidea”.

Hala eta guztiz ere, 2019, 2020 eta 2021ean ez da izapidetu prezioen eguneraketarik, informazio faltaren argudioak eraginda. Ondorioz, 2019. urtean, Tolosako Udalak erabaki zuen AGEM elkartearen kontratatzea, honako lan hau egiteko: “Análisis jurídico del contrato de construcción y explotación de centro gerontológico”. Lan horretan, beste hainbat gairen artean, espresuki eskatu zitzaion Uzturre Asistentzia Gunean eskaintzen diren zerbitzuen tarifen eguneraketaren proposamena egin zezala, 2014. urtetik tarifa horiek eguneratu gabe zeudela kontuan izanik. 2020ko azaroan aurkeztutako txostenean honako hau jaso zen:

“(…)

8.3 Actualización de las tarifas de los servicios complementarios

Siguiendo el criterio de revisión de precios establecido en la oferta económica de los pliegos que fue acordada por el Ayuntamiento, podemos considerar que básicamente los criterios a tener en cuenta son los siguientes:

- Variación del IPC del País Vasco.
- Variación salarial del convenio colectivo aplicable.



▣ Variación de tarifas aprobadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

A modo orientativo y con el ánimo de ser lo más objetivos posibles, se adjunta como **anexo 2** la actualización de tarifas por estos servicios hasta 2020, con los tres escenarios previamente indicados: 1) actualización según IPC del País Vasco, 2) actualización en base al criterio propuesto por la empresa en 2017, y 3) actualización según porcentaje medio resultante del IPC del País Vasco, variación salarial y variación de las tarifas de la Diputación.

No obstante, consideramos que se trata de una cuestión que conviene consensuar entre el Ayuntamiento y la empresa concesionaria, estableciendo un criterio concreto que se aplique de manera uniforme en los próximos ejercicios.

(...)

Hori ikusirik, eta Tolosako Udalaren Kontuhartzailtza Sailarekin kontrastatuta, egokia eta komenigarria ikusten da Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioen eguneraketa bideratzea, eta, horrekin batera, hurrengo urteetarako prezio horien eguneraketaren oinarria ezarriko duen adierazle bakarria izendatzea, objektiboa eta finkoa izango dena. Kasu honetan, honako irizpide honen arabera eguneraketa sistematikoak artikulatzeko beharra adostu da Uzturre Asistentzia Gunearekin: EAEko KPIaren urteko metatua, urtarrilean argitaratzen dena.

Era berean, Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza Sailak landu du eta aurkeztu du proposamena 2014an onartutako tarifa horiek gaur egunera egokitzeko aplikatu beharreko portzentajea kalkulatuta. Hori horrela, % 10,80eko igoera aplikatzea proposatzen da, eta proposamen honi erantsitako tarifen taula osatzen da.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin dute, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Kristina Pelaez, Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Gehiengoz onartu da.

Hori dela eta, Batzordeak hau

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.- Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen 2022rako prezioen zerrenda, honela:



I. eranskina.

UZTURRE ASISTENTZIA GUNEA. ZERBITZU OSAGARRIEN TARIFAK EGUNERATZEA.
COMPLEJO ASISTENCIAL UZTURRE. ACTUALIZACIÓN DE TARIFAS DE SERVICIOS COMPLEMENTARIOS

TOLOSAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

	IVA	2013-abe	2014-abe	2021-abe
Euskal Autonomia Erkidegoko urtetik urterako KPIa / IPC Comunidad Autónoma Vasca-Variación anual	ine			10,80 %

B. Udal eskumeneko zerbitzuen prezioak	BEZa barne	2007. urtea	2012. urtea	2013. urtea	2014. urtea	2022. urtea
	IVA incluido	PLEGUA	2014ko prezioak bider 2021eko KPIa metatua			

4.- ETXEBIZITZAK / APARTAMENTOS			0,00 %	14,02 %	4,60 %	0,60 %	
Norberaren arropa garbitzeko zerbitzua / Servicio de limpieza de ropa personal	%10	€/hilabetea	71,30	81,30	85,05	85,56	94,80
apartamentu[1]	%10	€/hilabetea	144,15	162,60	170,10	171,12	189,60
				0,20	0,05	0,01	
Zainketa pertsonalen zerbitzua, lanegunetan / Servicio cuidados personales laborales	%10	€/ordua	17,05	20,50	21,45	21,58	23,91
Zainketa pertsonalen zerbitzua, jaiegun edo asteburuetan / Servicio cuidados personales festivo-f/s	%10	€/ordua	20,51	24,70	25,85	26,00	28,81
			0,00	0,00	0,05	0,01	
Etxebizitzaren alokairua / Alquiler apartamento	%10	€/hilabetea	511,60	511,60	535,15	538,36	596,50
5.- ETXEBIZITZA KOMUNITARIOA / VIVIENDA COMUNITARIA					4,60 %	0,60 %	
Alojamendu plaza okupatua eguneko [4]/ Alojamiento plaza ocupada-día[4]	%10	€/eguna	18,75	18,75	19,60	19,72	21,85
Alojamendu plaza okupatua hileko / Alojamiento plaza ocupada-mes	%10	€/hilabetea	570,00	570,00	596,20	599,78	664,56
Alojamendu plaza hutsa eguneko / Alojamiento plaza vacía-día	%10	€/eguna	9,35	9,35	9,80	9,86	10,92
Alojamendu plaza hutsa hileko / Alojamiento plaza vacía-mes	%10	€/hilabetea	284,80	284,80	297,90	299,89	332,28
Mantenua eguneko / Manutención-día	%10	€/eguna	10,30	10,30	10,75	10,81	11,98
Mantenua hileko / Manutención-mes	%10	€/hilabetea	313,00	313,00	327,45	329,41	364,99

10. EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA / SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA						
A modalitatearen "Egunero saloak" salo bakoitza/ Cada sesión de la modalidad A "Sesiones diarias"		€/saioa				125,00
B modalitatearen "Astean bi saio" saio bakoitza/ Cada sesión de la modalidad B "Dos sesiones semanales"		€/saioa				130,00
C modalitatearen "Astean saio bat (zerbitzu deszentralizatua)" / Cada sesión de la modalidad C "Una sesión semanal (servicio descentralizado)"		€/saioa				150,00

C. Bestelako zerbitzuen prezioak	BEZa barne	2007. urtea	2012. urtea	2013. urtea	2014. urtea	2022. urtea
	IVA incluido	PLEGUA	2014ko prezioak bider 2021eko KPIa			

6.- ERABILERA ANITZEKO LOKALAK / LOCALES POLIVALENTES				2,40 %	4,60 %	0,60 %	
Hileko alokairua/ Alquiler mensual	%10	€/hilabetea	193,23	197,85	206,95	208,19	230,67
7.- 60 URTETIK GORAKOENTZAKO JANTOKI SOZIALA [5]/ COMEDOR SOCIAL MAYORES DE 60 AÑOS[5]				14,16 %	4,60 %	0,60 %	
Bazkaria lanegunetan/ Comida laborable	%10	€	6,00	6,85	7,15	7,19	7,97
Bazkaria jaiegun edo asteburuetan/ Comida festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	7,50	8,55	8,90	8,95	9,92
Afaria lanegunetan/ Cena laborable	%10	€	5,00	5,70	5,95	5,98	6,63
Afaria jaiegun edo asteburuetan/ Cena festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	6,25	7,10	7,45	7,49	8,30
Dieta berezia / Dieta particularizada				Dietaren arabera	Dietaren arabera	Dietaren arabera	Dietaren arabera
8.- 60 URTETIK BEHERAKOENTZAKO JANTOKI SOZIALA [6]/ COMEDOR SOCIAL MENORES DE 60 AÑOS[6]				14,00 %	4,40 %	0,60 %	
Bazkaria lanegunetan/ Comida laborable	%10	€	9,00	10,25	10,70	10,76	11,92
Bazkaria jaiegun edo asteburuetan/ Comida festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	10,50	11,95	12,50	12,57	13,93
Afaria lanegunetan/ Cena laborable	%10	€	7,50	8,55	8,90	8,95	9,92
Afaria jaiegun edo asteburuetan/ Cena festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	8,75	9,95	10,45	10,51	11,65
9.- BESTE ZERBITZU BATZUK/ OTROS SERVICIOS							
A.- FISIOTERAPEUTA [7]				13,33 %	4,60 %	-4,94 %	
Zerbitzua/ Servicio	%4	€	18,00	20,40	21,35	20,30	22,49
B.- PODOLOGIA [8]				13,50 %	4,60 %	-4,94 %	
1. kontsulta/ 1ª consulta	%4	€	10,00	11,35	11,85	11,27	12,49
Kiropedia kontsulta/ Consulta de quiropedia/consulta	%4	€	10,00	11,35	11,85	11,27	12,49
Sendaketa podologikoa/ Cura podológica/consulta	%4	€	11,15	12,65	13,20	12,57	13,93
Azkazala haragian sartuta-errehabilitazio odolgabea-kontsulta/ Rehabilitación incurrenta uña encarnada/consulta	%4	€	74,75	84,70	88,60	84,29	93,39
Azkazala haragian sartuta-kontsulta/ Uña encarnada/consulta	%4	€	37,40	42,40	44,35	42,17	46,72
Ultzerak kontsulta/ Ulceraciones/consulta	%4	€	22,30	25,25	26,45	25,14	27,86
Ultzera sendaketak-kontsulta/ Curas ulceraciones/consulta	%4	€	11,15	12,65	13,20	12,58	13,94
C.- ILE-APAINKETA (BEZAREN IGOERA) / PELUQUERIA (SUBIDA IVA)				13,46 %	14,83 %	0,60 %	
Gizezkoen ilea moztea / Corte pelo varones	%21	€	6,83	7,75	8,90	8,95	9,92
Emakumezkoen ilea moztea/ Corte de pelo mujeres	%21	€	8,04	9,10	10,50	10,56	11,70
Tindua/ Tinte	%21	€	18,54	21,00	24,20	24,35	26,98
Iraunkorra/ Permanente	%21	€	19,57	22,20	25,50	25,65	28,42



Bigarrena.- Uzturre zentroan eskaintzen diren zerbitzuen prezioak eguneratzeari dagokionez, prozedura hastea Udal honen interpretazio-irizpidea ezartzeko. Prozedura horretan, kontratistari entzunaldia emango zaio.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen 2022rako prezioen zerrenda.

4. ONARTZEA TURISMO OROIGARRIAK SALTZEKO PREZIO PUBLIKOAK.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko martxoaren 23ko irizpena

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Xedea: Prezio publikoak finkatzea edalontzi eta aterkientzat

Espediente zenbakia: 2022ORFI0002

2.- AURREKARIAK

Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu planak edo politikak.

Hiri ekonomia horren sustapenean, Tolosako Udalak turismoaren sektorea sustatzea lehentasuntzat jotzen du Hiri Ekonomiaren Plan Estrategikoan (2015), udalerriko enpleguan eta garapen ekonomikoan funtsezko eginkizuna baitu, eta, ondorioz, urteak daramatza alor horretan lanean.

Zentzu horretan, 2021eko abuztuaren 20an, 2021/1429 Dekretuaren bidez, erabaki zen Plaza Zaharreko 10. zenbakiko beheko solairuan kokatzen den 9483 erregistro finka



Tolosaldea Garatzen SA erakundeari esleitzea, bertan Tolosaldeko turismo bulegoa kokatzeko asmoz.

Horren ostean, 2021eko irailaren 6an, emakida hitzarmena sinatu zen. Eta turismo bulego berria 2022ko urtarrilaren 14an ireki zen ofizialki.

Turismo bulegoa berriaren irekiera aprobetxatuz, eta kontuan izanda 2019. urtean Tolosako turismo bulegoak guztira 8.392 bisitari artatu zituela, turistei produktu berriak eskaintzea erabaki da. Horregatik, Tolosako Udalak *souvenir* edo oroigarri berriak sortu ditu, zehazki, edalontziak eta aterkiak, eta oroigarri horiek turismo bulegoan salduko dira.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru arauan honako hau xedatzen da:

«Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:

- *Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak.*
- *Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.*

Prezio publikoak, gutxienez, jarduerak egin edo zerbitzuak ematearen kostu ekonomikoak estaltzeko adinakoak izango dira edo, bestela, zerbitzu edo jardueren erabilgarritasunaren maila baliokidea izango dute».

4.- PREZIO PUBLIKOEN ZENBATEKOA

Prezio publikoen zenbatekoa ezartzeko, produktuen unitateko kostua kontuan hartzea proposatzen da:

PRODUKTUA	KOSTUA UNITATEKO	PREZIO PUBLIKOA
Edalontzia	7,59 €	9 €
Aterkia	19,20 €	21 €

5.- PREZIO PUBLIKOAREN ERANSKINA

Honela geratuko da prezio publikoen 3.1.10 eranskina:

3.1.10 eranskina:

Aplikazio arauak:



- 1) Tolosako Udalak prezio publikoak ezarri eta exijitzen ditu *souvenir* edo oroigarri gisa edalontzi eta aterkien salmenta zerbitzua emateko.
- 2) Ordenantza honetan araututako prezio publikoa ordaintzera behartuta daude Tolosako Udalak salduko dituen aterki eta edalontziak eskuratzen dituztenak.
- 3) Prezio publikoarengatik ordaindu beharreko kopurua honako hau izango da:

PRODUKTUA	PREZIO PUBLIKOA 2022
Edalontzia	9 €
Aterkia	21 €

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Kristina Pelaez , Ander Figuerido. Aho batez onartu da.

Hori dela eta, batzordeak:

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Onartzea 5. puntuan azaldutako prezio publikoen 3.1.10 eranskina.

BIGARRENA.- Adieraztea prezio publiko berri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko direla indarrean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** ditu turismo oroigarriak saltzeko prezio publikoak.



5. ONARTZEA ORIABURU ERAIKINEKO ARETO NAGUSIA ERABILTZEKO BAIMENAREN TASA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko martxoaren 23ko irizpena

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Xedea: Tasa finkatzea Oriaburu eraikineko areto nagusia erabiltzeko

Espediente zenbakia: 2022ORFI0003

2.- AURREKARIAK

Tolosako Udala Oriaburu deituriko eraikinaren jabea da. Eraikin hori tokiko jabari publikoari atxikita dago, eta, zehazki, Udalaren eskumeneko honako zerbitzuei: garapen ekonomiko eta sozialari, eta tokiko enplegu-plan edo politikei.

Beheko solairuak areto nagusi bat du, eraikin osorako balio duena, gehienez ere 25 laguntzako lekua duena, eta baditu zenbait elementu prestakuntza-jarduerak nahiz eraikinaren jarduera nagusiarekin zerikusia duten beste erabilera batzuk sustatzeko.

Erregelamendu bat onartuko da eta bere xedea da arautzea Tolosako EMARI-COWORKING guneko areto nagusiaren erabilera, aldi baterako izaerarekin, eta funtzionamendua, baita erabiltzaileen eskubide, betebeharrak eta erantzukizunak ere.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru arauan honako hau xedatzen da:

«Tasak ondoko zerga-gaia duten tributuak dira: Herri jabariaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, eta zergapekoari modu partikularrean egokitu, eragin edo mesede egiten dioten zerbitzu prestazioak edo jarduerak zuzenbide publikoko erregimenean ematea edo egitea, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo jasotzekoak ez badira edo sektore pribatuak eman edo egiten ez badituzte.

Herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagarengatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoa finkatzeko, kontuan hartuko da merkatuko balioa edo erabileraren erabilgarritasunaren balioa.



4.- TASAREN ZENBATEKOA

Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko kostuak kontuan hartuz, tasa hori honako hau izatea proposatzen da: 3 euro orduko

5.- TASAREN ERANSKINA

Honela geratuko da herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantza fiskaleko 2.2.9 eranskinaren taula:

2.2.9 eranskina:

KULTUR ETXE ETA UDALEKO BESTE ZENBAIT HIGIEZIN	CASA DE CULTURA Y OTROS INMUEBLES MUNICIPALES	EUROAK 2022
1. <u>ERABILERA OROKORRA</u>	<u>USO GENERAL</u>	
1.1Kultur Etxeko Areto Nagusiaren erabilera, eguneko	1.1 Utilización de la Sala Principal de la Casa de Cultura, por día	154,80 €
1.2Kultur Etxeko 1, 2 eta 3 bilera aretoak eta Topagune aretoa, eguneko	1.2 Salas de Reunión 1, 2 y 3 de la Casa de Cultura y la sala Topagune, por día	95,20 €
1.3Kultur Etxeko 4 eta 5 bilera aretoak	1.3 Salas de Reunion 4 y 5 de la Casa de Cultura	76,10 €
1.4Auditorioa, eguneko	1.4 Auditorio, por día	154,80 €
2 Leidor Aretoa	2 Leidor Aretoa	
2.1.Egun erdia (geh.5ordu)	2.1..Media jornada(máx 5h)	583,60 €
2.2 Egun osoa (geh.10 ordu)	2.2.Jornada entera(máx 10h)	1.167,85 €
3. Oriaburuko areto nagusia, orduko	3. Sala principal de Oriaburu, por hora	3,00 €

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin dute, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Kristina Pelaez , Ander Figuerido. Aho batez onartu da.

Hori dela eta, batzordeak:

DIKTAMINATU DU

LEHENEA.- Oriaburu eraikineko areto nagusia erabiltzeko tasa onartzea, 3 euro orduko, 2.2.9 eranskinean.



BIGARRENA.- Aldaketa hori 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko dute, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamaziorik edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Oriaburu eraikineko areto nagusia erabiltzeko baimenaren tasa.

6. ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIAN ARLO SOZIOEDUKATIBOAN ETA PSIKOSOZIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN ESPEDIENTEA, ETA HASIERA EMATEA LIZITAZIOARI.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko martxoaren 23ko irizpena

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua.
Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzuetako Saila
Espedientea	2022SABI0003

Txosten hau eman da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saileko buruak egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu



ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60046-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

Kontratazio espediente hau, 2020SABI0006 eta 2021SABI0009 kontratazio-espedienteak huts deklaratu izanaren ondorioa da. Beraz, xede bera duen lizitazioa jartzen da martxan berriro.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikizaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentu hauek dituela egiaztatu da:

- Espedientearen unitate sustatzaileko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.



- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Asmatu enpresak egindako azterketa ekonomikoa.
- Preskripzio tekniko partikularren plegua.
- Administrazio baldintza partikularren plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio-txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.

Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 2.505.641,48 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

						aurreikusitako aldaketak	BALIO ZENBATETS
1 urte – BEZa	1 urte + BEZa	2 urte – BEZa	2 urte + BEZa	5 urte – BEZa	5 urte + BEZa		
417.606,91	459.367,60	835.213,83	918.735,21	2.088.034,56	2.296.838,02	417.606,91	2.505.641,48

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregulazio harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke. Kasu honetan, kontratuaren xedea SPKLren IV. Eranskinean jasotako gizarte-zerbitzuetako kontratu bat da hau, beraz, 22.1 artikuluren c) idatz-zatian xedatzen den kontratuaren balio

ESKUCecc3c22-7eaa-44a8-a321-de8dd50273ce



zenbatetsia gainditzen duenez (750.000 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **erregulazio harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratzailearen profileen argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da**.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurso berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurso bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluen 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.

IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: «Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentak, behar bezala arrazoitua». Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.



Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, honako honen arabera: «*Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...*».

Kasu honetan, ez da legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste bi alditan luzatzeko aukerarekin: lehenengoan, bi urte, eta bigarrenean, urtebete. Beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izan daiteke.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **2.505.641,48** eurokoa da. SPKLren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, balio zenbatetsia kalkulatzeko, indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontuan. Gainera, zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta irabazi industrialak ere izan dira kontuan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

KOSTUEN KALKULUA (soldata erreala)	
soldatak (gordina)	242.375,00
Soldatak + Gizarte Segurantzak	322.358,75
irabazi industrialak (% 6)	19.341,53
gastu orokorrak (13%)	41.906,64
Lokalaren alokairua	24.000,00
materialak eta bestelakoak	10.000,00
GUZTIRA	417.606,91

SOLDATA KOSTUAK			
kategoria	langile kopurua	dedikazioa	urteko kostua
zuzendaria	1	50,00 %	16.927,00
koordinatzaile 1	1	100,00 %	29.165,00
koordinatzaile 2	1	50,00 %	16.927,00
terapeuta	1	100,00 %	41.800,00
hezitzailea	6	100,00 %	137.556,00
GUZTIRA	10		242.375,00

LIZI OINARRI AURREKON						Aurreikusitako aldaketak	BALIO ZENBATETSIA
1 urte - BEZa	1 urte + BEZa	2 urte - BEZa	2 urte + BEZa	5 urte - BEZa	5 urte + BEZa		
417.606,91	459.367,60	835.213,83	918.735,21	2.088.034,56	2.296.838,02	417.606,91	2.505.641,48

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: **918.735,21** euro, horietatik, 835.213,83 euro printzipalari dagozkio, eta 83.521,38 euro, BEZari (% 10).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0500.227.04.231.00** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatzeko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan

	hilabeteak	balio zenbatetsia	kuota (BEZa barne)
2022	6	208.803,46	229.683,80
2023	12	417.606,91	459.367,60
2024	6	208.803,46	229.683,80
	6	208.803,46	229.683,80
2025	12	417.606,91	459.367,60
2026	6	208.803,46	229.683,80
	6	208.803,46	229.683,80
2027	6	208.803,46	229.683,80
	6	208.803,46	229.683,80
aldaketak	20,00 %	417.606,91	
GUZTIRA	60	2.505.641,48	2.296.838,02

Aurreikusita dago kontratua 2022ko uztailaren 1ean hastea



dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

VI.- ADJUDIKAZIOA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako adjudikazio-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *«Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...»*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10. eta 19. idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.



- 1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
- 2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 2.505.641,48 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino txikiagoa da; beraz, alkate-lehendakariarena izango litzateke eskumena, baina kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Antolakuntza Batzorde informatiboari honako erabaki hauek hartzeko proposatu zaio, haren ebazpenaren kalterik gabe:

IRIZPEN-PROPOSAMENA

Lehena.- Onartzea Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea, eta hasiera ematea lizitazioari.

Bigarrena.- Kontratu honen ezaugarriak onartzea:



Epea: Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste bi alditan luzatzeko aukerarekin: lehenengoan, bi urte, eta bigarrenean, urtebete. Beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izan daiteke.

KOSTUEN KALKULUA (soldata errealal)	
soldatak (gordina)	242.375,00
Soldatak + Gizarte Segurantzza	322.358,75
irabazi industrialak (% 6)	19.341,53
gastu orokorrak (13%)	41.906,64
Lokalaren alokairua	24.000,00
materialak eta bestelakoak	10.000,00
GUZTIRA	417.606,91

SOLDATA KOSTUAK			
kategoria	langile kopurua	dedikazioa	urteko kostua
zuzendaria	1	50,00 %	16.927,00
koordinatza 1	1	100,00 %	29.165,00
koordinatza 2	1	50,00 %	16.927,00
terapeuta	1	100,00 %	41.800,00
hezitzailea	6	100,00 %	137.556,00
GUZTIRA	10		242.375,00

LIZI OINARR AURREKON						Aurreikusitako aldaketak	BALIO ZENBATETS
1 urte - BEZa	1 urte + BEZa	2 urte - BEZa	2 urte + BEZa	5 urte - BEZa	5 urte + BEZa		
417.606,91	459.367,60	835.213,83	918.735,21	2.088.034,56	2.296.838,02	417.606,91	2.505.641,48

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **2.505.641,48** eurokoa da. SPKLren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko, indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontuan. Gainera, zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta irabazi industrialak ere izan dira kontuan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **918.735,21** euro, horietatik, **835.213,83** euro printzipalari dagozkio, eta **83.521,38** euro, BEZari (% 10).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0500.227.04.231.00** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

	hilabeteak	balio zenbatets	kuota (BEZa barne)
2022	6	208.803,46	229.683,80
2023	12	417.606,91	459.367,60
2024	6	208.803,46	229.683,80
	6	208.803,46	229.683,80
2025	12	417.606,91	459.367,60
2026	6	208.803,46	229.683,80
	6	208.803,46	229.683,80
2027	6	208.803,46	229.683,80
	6	208.803,46	229.683,80
aldaketak	20,00 %	417.606,91	
GUZTIRA	60	2.505.641,48	2.296.838,02

Aurreikusita dago kontratua 2022ko uztailaren 1ean hasia

Hirugarrena.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua zuzenketa honekin: Administrazio Baldintza Pleguaren 14. klausula, langile mugagabeen ehunekoak % 60 izatea, % 30en ordez.



Laugarrena.- Hasiera ematea kontratazio-jardunbideari (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatzailleek proposamenak 36 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bosgarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea Gizarte Zerbitzuetako Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako udalerrian arlo sozioedukatioan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea, eta lizitazioari hasiera ematea.

7. HASIERAKO ONARPENA EMATEA ORIABURUKO ARETO NAGUSIA ERABILTZEKO ERREGELAMENDUARI.

Herritarrak Batzorde Informatiboaren 2022ko martxoaren 23ko irizpena

AURREKARIAK

Tolosako Udala Oriaburu deituriko eraikinaren jabea da. Eraikin hori tokiko jabari publikoari atxikita dago, eta, zehazki, Udalaren eskumeneko zerbitzu hauei: garapen ekonomiko eta sozialari, eta tokiko enplegu-plan edo politikei.

Eraikinak 571 m²-ko azalera du, gutxi gorabehera, eta beheko solairua, lehen solairu altua eta ganbara-solairua ditu. Sotoa du solairuaren zati batean.

Gaur egun, beheko solairuaren zati bat Tolosa&Co merkatarien elkarteari lagata dago; lehen solairua, berriz, Udaleko *coworkingerako* da, eta ekainaz geroztik, Udaleko



Garapen Ekonomikoko Azpisailaren bulegoa ere hemen dago. Hiru erakunde horiek eraikineko areto nagusiaren erabilera partekatzen dute. Aretok gehienez ere 25 lagunentzako lekua du, eta prestakuntza-jarduerak nahiz eraikinaren jarduera nagusiarekin lotura duten beste erabilera batzuk sustatzen ditu.

Tolosako Udalak, araudi honen bidez, espazio horren erabilera arautu eta sustatu nahi du. Behar bezala identifikatutako herritar, erakunde eta elkarteek parte hartu ahal izan dute eta ekarpenak egin. Horretarako, iragarkia ikusgai egon da 15 lanegunez Tolosako Udalaren webgunean, 2021eko urriaren 11tik azaroaren 5a bitarte, eta epe horretan ez da ekarpenik jaso.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Oinarri Juridikoa eta Udalaren eskumena

-Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela, batetik, tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena; eta, bestetik, barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea; zentzu horretan, baita txikizkako merkataritza planifikatzea eta antolatzea ere, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arazoizko erabilerari erantzunez.

- Herri Ondareei buruzko 1372/86 Erregelamendua, 1986ko ekainaren 13koa.
- Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legea, azaroaren 3koa.

Arautegiaren arabera, zerbitzu publikoko ondareak hauek dira:

Herri Ondareei buruzko 1372/86 Erregelamendua, 1986ko ekainaren 13koa (4. artikulua):

«Son bienes de servicio público los destinados directamente al cumplimiento de fines públicos de responsabilidad de las Entidades locales, tales como Casas Consistoriales, Palacios Provinciales y, en general, edificios que sean de las mismas, mataderos, mercados, lonjas, hospitales, hospicios, museos, montes catalogados, escuelas, cementerios, elementos de transporte, piscinas y campos de deporte, y, en general, **cualesquiera otros bienes directamente destinados a la prestación de servicios públicos o administrativos**».

Herri Ondareei buruzko 1372/86 Erregelamendua, 1986ko ekainaren 13koa (75.artikulua):

«En la utilización de los bienes de dominio público se considerará:



1.º Uso común, el correspondiente por igual a todos los ciudadanos indistintamente, de modo que el uso de unos no impida el de los demás interesados, y se estimará:

a) General, cuando no concurren circunstancias singulares.

b) Especial, si concurrieran circunstancias de este carácter por la peligrosidad, intensidad del uso o cualquiera otra semejante.

2.º Uso privativo, el constituido por la ocupación de una porción del dominio público, de modo que limite o excluya la utilización por los demás interesados.

3.º Uso normal, el que fuere conforme con el destino principal del dominio público a que afecte.

4.º Uso anormal, si no fuere conforme con dicho destino».

Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legea, azaroaren 3koa (85 artikulua):

«Tipos de uso de los bienes de dominio público.

1. Se considera uso común de los bienes de dominio público el que corresponde por igual y de forma indistinta a todos los ciudadanos, de modo que el uso por unos no impide el de los demás interesados.

2. Es uso que implica un aprovechamiento especial del dominio público el que, sin impedir el uso común, supone la concurrencia de circunstancias tales como la peligrosidad o intensidad del mismo, preferencia en casos de escasez, la obtención de una rentabilidad singular u otras semejantes, que determinan un exceso de utilización sobre el uso que corresponde a todos o un menoscabo de éste.

3. Es uso privativo el que determina la ocupación de una porción del dominio público, de modo que se limita o excluye la utilización del mismo por otros interesados».

Beraz, Erregelamendu honen bidez zerbitzu publikoko ondare baten erabilera xedatzen da.

2.-Erregelamenduaren izapidetzea:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, Erregelamendu honen izapidetzeak pauso hauek izango ditu:

- Hasierako onespena, osoko bilkurari dagokiona, lege horren 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesdunen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, epe horretan entzunaldia emango zaie Coworking programan parte hartzen duten kideei, Tolosa & Co Elkarteari eta inplikaturako agenteei.



- Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dute.

ORGANO ESKUDUNA

Oriaburu eraikineko areto nagusia aldi baterako erabiltzeko araudiaren onespena Udalbatzaren osoko bilkuraren eskumena da.

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2022ko martxoaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Xarles Iturbe, Izarne Iglesias, Begoña Tolosa, Joxe Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Kristina Pelaez eta Xabier Martinez.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea Oriaburuko areto nagusia erabiltzeko Erregelamenduari, era honetan:

ORIABURU ERAIKINEKO ARETO NAGUSIA ALDI BATERAKO ERABILTZEKO ARAUDIA

Zioen azalpena:

Tolosako Udala Oriaburu deituriko eraikinaren jabea da. Eraikin hori tokiko jabari publikoari atxikita dago, eta, zehazki, Udalaren eskumeneko honako zerbitzuei: garapen ekonomiko eta sozialari, eta tokiko enplegu-plan edo -politikei.

Eraikinak 571 m²-ko azalera du, eta beheko solairua, lehen solairua eta ganbara-solairua ditu. Sotoa du solairuaren zati batean.

Beheko solairuak areto nagusi bat du, eraikin osorako balio duena, gehienez ere 25 lagunentzako lekua duena, eta baditu zenbait elementu prestakuntza-jarduerak nahiz eraikinaren jarduera nagusiarekin zerikusia duten beste erabilera batzuk sustatzeko.

Tolosako Udalak, araudi honen bidez, espazio horren erabilera arautu eta sustatu nahi du.

1. artikulua.- Xedea

Erregelamendu honen xedea da Tolosako EMARI-COWORKING guneko areto nagusiaren erabilera, aldi baterako izaerarekin, eta funtzionamendua arautzea, baita erabiltzaileen eskubide, betebeharrak eta erantzukizunak ere.

2. artikulua.- Aretoa lehentasunez erabiltzea

Eraikineko areto nagusia garapen ekonomikoarekin eta ekintzailetasunarekin lotutako jardueretarako erabiliko da Tolosako udalerrian.



Aretoaren erabileragatik ordaindu beharreko tasa Tolosako ordenantzako herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta horren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantza fiskaleko 2.2.9 eranskinean jasoa dagoena izango da.

Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira aurreko paragrafoko ordenantza fiskaleko 6. artikuluan aipatzen direnak.

3. artikulua.- Lekua erreserbatzea

Edozein pertsona fisikorik edo pertsona juridiko baten legezko ordezkariak egingo du erreserba-eskaera.

Espazioa erreserbatzeko, dagokion eskaera egin behar zaio Garapen Ekonomiko eta Enplegu arloari jarduera egin baino 20 egun natural lehenago, gutxienez. Eskabidea elektronikoki aurkeztuko da Tolosako Udaleko erregistro elektronikoan, araudi honi atxikitako ereduaren arabera.

Hala ere, Oriaburu eraikinaren coworking zerbitzuko erabiltzaileek eta Tolosa&Co elkartearen ordezkariak egun berean aurkeztu ahal izango dute eskaera.

Aretoa astelehenetik ostiralera erabili ahal izango da, 08:00etatik 20:00etara, eraikin berean beste gela batzuk erabiltzeko hitzarmena sinatuta duten pertsonak izan ezik; horiek 7 egunetako 24 ordutan erabili ahal izango dute.

Libre dagoen edo ez jakiteko, eraikinera sarbidea dutenek Udalak Google Calendarren bidez irekitako tresna erabili ahal izango dute.

4. artikulua: erreserba berrestea/baimena ukatzea

1. Erreserba berrestea.

Eskaera arloko teknikariak aztertuko du. Araudi honetako zehaztapenak betetzen baditu, egindako erreserba-eskaera baieztatu besterik ez du egingo, eta eskatzaileari jakinaraziko dio baieztapena, hark aukeratutako bidearen bidez.

2. Eskaerari ezezkoa ematea.

Txosten teknikoa kontrakoa bada, arloko zinegotzi delegatuaren ebazpena jasoko du. Kasu horretan, ezezko ebazpena eman beharko da, eta interesdunari behar bezala jakinarazi beharko zaio.

Udalak instalazioen erabilera ukatuko die pertsona edo erakundeei, honako arrazoi hauek tarteko badira:

- *Eraikinaren xedearekin eta xedearekin loturarik ez duten eskaerak.*
- *Aurrez eraikineko bizilagunei edo erabiltzaileei kalteak eta eragozpenak eragin dizkieten erakundeak, zaratak eragin dituztenak eta/edo ezarritako garbiketa-betebeharrak bete ez dituztenak.*

5. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak

Eskatzaileak eskubidea izango du Oriaburu eraikineko areto nagusia eta haren instalazioak erabiltzeko, aldi baterako izaerarekin, erabiltzeko egokiak diren baldintzetan.

Era berean, arduradun bat izango du, eta arduradun hori eskatzailearen solaskide izango da.

Eskatzailearen betebeharrak izango dira:

Aretoa eta bertako objektuak txukun edukitzea, eta haien kontura objektu berriak ekarriz



gero, egun berean kendu beharko dira. Bestela, Tolosako Udalak udal-gordailura eramango ditu, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, 10 egun naturaleko epean.

Erabilitako espazioa eta inguruak garbitzea, Udalak ematen duen garbiketa-zerbitzua alde batera utzita.

Antolatutako jardueratik erator daitezkeen kalteen erantzukizuna, bereziki, jarduera egitetik objektuei eta pertsoneri etor dakizkiekeen kalteengatiko erantzukizun zibila.

Aldi baterako baimendutako jarduerak ezin izango die kalterik egin Oriaburu eraikinean egin ohi diren gainerako jardueren ohiko garapenari, batez ere coworkingarekin lotutakoei. Nolanahi ere, zarataren arloan indarrean dagoen araudian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

6. artikulua.- Euskararen erabilera

Arduradunak euskararen erabilera bermatuko du eta bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direnean lehentasuna emango dio euskarari, bai ahoz, bai idatziz. Hizkuntza paisaia ere zaindu egingo da eta errotuluetan eta oharretan euskara erabiliko da lehentasunez. Bi hizkuntzetan antzeko grafia duten mezuen kasuan edo piktogramekin euskara hutsezko elementuak utziko dira agerian. Euskara Sailak laguntza eskainiko die arduradunei testuak egokiak izan daitezen.

7. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Gune horietan ez da onartuko jokabide eta jarrera sexista, xenofobo eta LGTBIfobikorik.

8. artikulua: Lan-arriskuak eta osasun-neurriak

Era berean, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudi orokorra errespetatuko da, bai eta tabakismoari aurre egiteko osasun-neurriak ere; beraz, ezingo da erre Oriaburuko instalazioetan.

9. artikulua. Udalaren betebeharrak

- *Areto nagusia eta haren instalazioak baldintza egokietan erabiltzeko aukera ematea.*
- *Arduradun bat izendatzea, eskatzailearekin solaskide gisa aritzeko.*

Araudi honetan aurreikusi ez den guztian, udal arduradunen jarraibideak bete beharko dira, eta, beharrezkoa izanez gero, aretoa erabiltzeko jarraibide espezifikoak adieraziko dituzte, haien izaeraren arabera.

1. eranskina. Inbentarioa:

- *Proiektagailua*
- *Atrila*
- *3 mahai*
- *33 aulki*
- *Arbela*

BIGARRENA.- Erregelamendu hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, epe horretan entzunaldia ematea Coworking programan parte hartzen duten kideei, Tolosa &Co Elkarteari eta inplikaturako agenteei.



HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez eman dio hasierako onarpena Oriaburuko areto nagusia erabiltzeko Erregelamenduari.

8. ONARTZEA TOLOSA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAN(GGLA) INTEGRATZEKO PROZESUAN BESTE UDALERRI BATEN SARRERAK ERAGINDA SORTURIKO BALDINTZA ALDAKETAK.

Lurraldeko informazio batzordeko 2022ko martxoaren 23ko irizpena

Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak honako irizpen proposamen hau egin zuen 2022ko martxoaren 18an:

1- AURREKARIAK

- 2019/12/10ean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu zuen:

«Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari aldez aurreko eskaera egitea, Tolosako Udala Partzuergo horretan sartzeko, haren estatutuen 37. artikuluan ezarritakoaren arabera; ondorioz, erakunde horrek esan dezala eskaera egokia den ala ez eta, egokia bada, eman diezaiola Tolosako Udalari bete beharreko baldintzen berri».

- 2020/06/3an Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza (GGLA) Partzuergoko Batzar Nagusiak integrazio prozesuari hasiera ematea erabaki zuen eta integratzearen baldintzak finkatu zituen.
- 2021eko azaroaren 25eko Ohiko Osoko Bilkurak, erabaki zuen ontzat ematea erakundera sartzeko jarritako prozedura-baldintzak, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak ezarritakoak, eta hasierako onarpena eman zitzaizen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Estatutuei eta bidaiaren errepide bidezko garraio zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzearen erregelamenduari.



- 2022ko urtarrilaren 11n, erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, aipatutako bi arautegiak 30 eguneko epean jendaurrean jarritz. Tarte honetan alegaziorik egon ez zenez, idazkariak ziurtagiria egin zuen eta behin betiko onartuta geratu ziren.
- 2022ko martxoaren 15ean, Tokiko Gobernu Batzarrak Tolosako Udalaren, GGLAren eta Autobuses Cuadra SAU operadorearen arteko hitzarmena onartu zuen.
- 2022ko martxoaren 18an, GGLAk sarrera erregistro bidez (2022-3551) jakinarazi zuen ordezkari baldintzak aldatu egin direla, tarte horretan Oñati herria partzuergoan sartu delako, eta integrazio prozesua amaitu ez denez, Udalak baldintzak horiek onartu behar dituela. Baldintza horiek I. Eranskinean azaltzen dira.

2- AZTERKETA TEKNIKOA

➤ 2021eko azaroaren 25eko Ohiko Osoko Bilkurak, besteak beste, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak erakundera sartzeko jarritako prozedura-baldintzak onartzea erabaki zuen. Zehazki, akordioaren bigarren eta hirugarren atalek honako hau diote:

*«**BIGARRENA**-Patxi Amantegi Zufiria jauna eta Xabier Balerdi Tolosa izendatzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan Tolosako Udaleko ordezkari titularra eta ordezkaria izateko. Estatutuen arabera, bere partaidetza-portzentajea % **0,404**koa da eta boto kopurua 4.*

***HIRUGARRENA**.-Onartzea **2021**. urteari dagokion urteko ekarpena (**3.971 euro**), gastu arrunt moduan. Hala eta guztiz ere, aurrez adierazitakoa urte osoko ekarpena denez, kopuru finko eta zehatza kalkulatzeko kontuan hartuko da zein hilabetetan sartzen den».*

➤ GGLAk bidalitako informazio eguneratuaren arabera, Oñati partzuergoan sartu izana kontuan hartuz, partaidetza-portzentajea % 0,387koa da orain, eta boto kopurua bere hartan mantentzen da.

Ekarpenari dagokionez, Mugi Virtuala deituriko proiektuaren ezarpenarengatik 7.139 eurotara igo da. Kontuan hartu behar da urte osoko ekarpena denez, kopuru finko eta zehatza kalkulatzeko kontuan hartuko beharko dela zein hilabetetan sartzen den. Kopuru honen ordainketa beti ere kreditu nahikoa izatera baldintzatu beharko da.

Beraz, bi atal horiek horrela geratuko lirateke:

*«**BIGARRENA**- Patxi Amantegi Zufiria jauna eta Xabier Balerdi Tolosa izendatzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan Tolosako Udaleko ordezkari titularra eta*



ordezkoa izateko. Estatutuen arabera, bere partaidetza-portzentajea % **0,387**koa da eta boto kopurua 4.

HIRUGARRENA.-Onartzea **2022.** urteari dagokion urteko ekarpena (**7.139 euro**), gastu arrunt moduan. Hala eta guztiz ere, aurrez adierazitakoa urte osoko ekarpena denez, kopuru finko eta zehatza kalkulatzeko kontuan hartuko da zein hilabetetan sartzen den. Ekarpeneren ordainketa kreditu nahikoa izatera baldintzatuko da».

➤ Udalbatzak onartutako hitzarmena eta estatutuak ez dira aldatzen. Integraziorako baldintza orokorrak ez dira aldatzen. Aldaketa honek 2022ko martxoko egoera islatzen du, eta etorkizunean aldatu daitezke bai ekarpen ekonomikoa, bai ordezkari-tza portzentajea.

➤ Organo eskuduna: osoko bilkura da organo eskuduna, eta erabakiak onartzeko gehiengo absolutua beharrezkoa da. Honela dio Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 22.2 b).artikuluak: «2. *Hauek dira, nolana ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak:*...

b) Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea; udal-mugartea aldatzea; udalerriak eta 45. artikuluan aipatutako erakundeak sortzea edo ezabatzea; deskontzentratutako organoak sortzea; udalerriburua aldatzea eta udalerraren edo erakunde horien izena aldatzea, eta bertako bandera, ikurra edo armarrria onartzea edo aldatzea».

47.2.g) artikulua gehiengo absolutua eskatzen du: «2. *Korporazioko legeko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, jarraian agertzen diren arloetan erabakiak hartzeko:*...

g) Mankomunitateak eta beste elkarte-antolakunde batzuk sortu, aldatu edo desegiteko, baita horiei atxiki, eta bertako estatutuak onartu eta aldatzeko ere».

Tolosako Udaleko Lurraldeak Batzordeak, 2022ko martxoaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Egoitz Sorozabal Iturain, Izarne Iglesias, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.



Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA- 2021eko azaroaren 25eko Ohiko Osoko Bilkurak Tolosa Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan integratzeko hartutako akordioan atal hauek aldatzea:

Honela jartzen zuen:

«BIGARRENA- Patxi Amantegi Zufiria jauna eta Xabier Balerdi Tolosa izendatzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan Tolosako Udaleko ordezkari titularra eta ordezkoa izateko. Estatutuen arabera, bere partaidetza-portzentajea % 0,404koa da eta boto kopurua 4.

HIRUGARRENA.-Onartzea 2021. urteari dagokion urteko ekarpena (3.971 euro), gastu arrunt moduan. Hala eta guztiz ere, aurrez adierazitakoa urte osoko ekarpena denez, kopuru finko eta zehatza kalkulatzeko kontuan hartuko da zein hilabetetan sartzen den».

Eta honela jartzea:

«BIGARRENA- Patxi Amantegi Zufiria jauna eta Xabier Balerdi Tolosa izendatzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan Tolosako Udaleko ordezkari titularra eta ordezkoa izateko. Estatutuen arabera, bere partaidetza-portzentajea % 0,387koa da eta boto kopurua 4.

HIRUGARRENA.-Onartzea 2022. urteari dagokion urteko ekarpena (7.139 euro), gastu arrunt moduan. Hala eta guztiz ere, aurrez adierazitakoa urte osoko ekarpena denez, kopuru finko eta zehatza kalkulatzeko kontuan hartuko da zein hilabetetan sartzen den. Ekarpenaren ordainketa kreditu nahikoa izatera baldintzatuko da».

BIGARRENA- GGLAri erabakiaren berri ematea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosa Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan (GGLA) integratzeko prozesuan beste udalerrri baten sarrerak eraginda sorturiko baldintza aldaketa.

9. ALKATETZA DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2022/213 HERRITARREN BATZORDE INFORMATIBOKO LEHENDAKARIAREN IZENDAPENA.

Udalbatzarkideei 2022ko otsailaren 10eko 2022/213 Alkatetza Dekretuaren berri eman zaie. Honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.a) artikuluan, eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, 125.a) artikuluan xedatzen dutenaren arabera, eta honako hauek

IKUSIRIK:

LEHENA.- Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2019ko uztailaren 19an egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, erabaki zuen Udaleko Batzorde Informatibo iraunkorrek eta Kontuen Batzorde Berezia sortzea eta Batzorde bakoitzean udal talde bakoitzari zegokion ordezkari eta kideen kopurua zehaztea.

BIGARRENA.- Alkatetza honek, 2019ko irailaren 12an dataturiko Dekretuan, honako erabaki hauek hartu zituen:

LEHENA.- Tolosako Udalak eratu dituen batzorde informatiboari proposatzea lehendakari hauen izendapenak onartzea, alkate-lehendakariaren delegazioz arituko direnak, ordezeko gisa:

- **ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE IRAUNKORRA : Xabier Balerdi Tolosa.**
- **HERRITARREN BATZORDE IRAUNKORRA: Nerea Letamendia Belloso**
- **LURRALDEKO BATZORDE IRAUNKORRA: Begoña Tolosa Mendia**



BIGARRENA.- Lehendakartzak eskuordetu zaizkien zinegotziak absente, kanpoan edo beste eragozpenen bat izanez gero, alkateak bereganatuko ditu zuzen-zuzenean eskuordeturiko eskumenak organo kolegiadun guztien lehendakaria den heinean, eta horretarako ez da beharrezkoa izango ebazpen berri bat egitea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea interesdun guztiei, idazkari orokorrari eta sail eta azpisailei.

LAUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea dagokion batzorde informatiboari eta Udalbatzari egingo duten lehen bilkuran, eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko web orrian.

BOSGARRENA.- Betetzea 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, eta 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, xedatutakoa ebazpen honetan adierazitakoei buruz, publikotasun aktiboari dagokionez.

HIRUGARRENA.- Nerea Letamendia Belloso andreak zinegotzi karguari uko egin ondoren, eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren aurrean legezko izapidea burutu eta gero, Xarles Iturbe Pasaban jaunak zinegotzi karguaren jabetza hartu zuen Tolosako Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran.

KONTUAN HARTURIK:

LEHENA.- 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, 125.a) artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkate-lehendakaria da batzorde informatibo guztien berezko lehendakaria. Hala ere, kargu hori eskuorde dezake beste zinegotziengan, baina horretarako beharrezkoa da batzorde Informatiboak dagokion hautaketa gauzatzea.

Beraz, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udaleko Herritarren Batzorde Informatiboko lehendakariaren izendapena, zeina alkate-lehendakariaren delegazioz arituko baita, ordezkotza gisa:

- **HERRITARREN BATZORDE IRAUNKORRA: Xarles Iturbe Pasaban.**

BIGARRENA.- Lehendakartzak eskuordetu zaion zinegotzia absente edo kanpoan bada, edo beste eragozpenen bat izanez gero, alkateak bereganatzea zuzen-zuzenean eskuordeturiko eskumenak organo kolegiadun guztien lehendakaria den heinean, eta horretarako ez da beharrezkoa izango ebazpen berri bat egitea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea interesdun guztiei, idazkari orokorrari eta sail eta azpisailei.



LAUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Herritarren Batzorde Informatiboari eta Udaltzari egingo duten hurrengo bilkuran, eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko web orrian, Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

BOSGARRENA.- Betetzea 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, eta 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, xedatutakoa, eta erabaki horiek Tolosako Udaleko Gardentasunaren Atarian argitaratzea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Alkate-lehendakariak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduretan adierazitako datan.

ALKATEA

**Nire aurrean,
IDAZKARIA**

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

10.BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA: TOLOSAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAREN 2. FASEAREN 1. ATALA.

Giza Baliabideetako Azpisaileko teknikariak egindako txostenaren arabera, eta espedientearen edukia egiaztatu ondoren, Tolosako Udaleko Giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren 2. fasearen 1. atala onartzeko xedea duen espedientean, honako hau egiaztatu da:

ESPEDIENTEA: TOLOSAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAREN 2. FASEAREN 1. ATALAREN ONARPENA

ESPEDIENTEAREN KODEA	2021PARP0001
HASIERAKO ONESPENAREN DATA	2022-01-27
HASIERAKO ONESPENAREN ORGANOA	Udalbatzarra
Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean	2022-02-11
(Bere kasuan) Interesdunen jakinarazpenen datak	Komitea 2022-02-17
Informazio publikoko epearen amaiera	2022-03-10
Jasotako iradokizunak/erreklamazioak	Ez dago



Informazioa publikoko epean inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartutzat ematen da.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

11.BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA: TOLOSAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA. 2022. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERRENDA.

Giza Baliabideetako Azpisaileko teknikariak egindako txostenaren arabera, eta espedientearen edukia egiaztatu ondoren, Giza baliabideak arrazionalizatzeko programa (plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda) onartzeko xedea duen espedientean, honako hau egiaztatu da:

ESPEDIENTEA: GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAREN (PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERRENDA) ONARPENA.

ESPEDIENTEAREN KODEA	2022PARP0001
HASIERAKO ONESPENAREN DATA	2022-02-23
HASIERAKO ONESPENAREN ORGANOA	Udalbatzarra
Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean	2022-03-01
(Bere kasuan) Interesdunen jakinarazpenen datak	-
Informazio publikoko epearen amaiera	2022-03-22
Jasotako iradokizunak/erreklamazioak	Ez dago

Informazioa publikoko epean inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartutzat ematen da.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

12.MENDEBALDEKO SAHARARI BURUZKO MOZIOA.

EAJ-PNV eta EHBildu talde politikoek aurkeztu duten mozioak honela dio:



“Espainiako Estatuak, arrazoi historiko, politiko eta juridikoengatik, erantzukizun handia dauka bizi-bizi dirauen Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan.

Izan ere, 1975an, Hagako Nazioarteko Auzitegiak legez kanpoko jo zituen ‘Madrilgo Akordioak’. Ondorioz, Marokok ez dauka subiranotasunik Mendebaldeko Saharan, eta okupazioa legez kanpoko da erabat.

Duela hamarkada batzuk, Nazio Batuen Gutunean jasotzen denarekin bat etorritik, NBEak Mendebaldeko Saharaz adierazi zuen “Lurralde ez Autonomoa” dela, gobernu propioa osotasunean eskuratu ez duten herrien lurraldeei ematen zaien izendapenaren arabera. Afrika osoan, Mendebaldeko Saharako da oraindik etenda dagoen estatutu post kolonial bakarra.

Halaber, Nazio Batuen Erakundeak Espainiako Gobernuari etengabe erreklamatu dio potentzia kolonial administratzailea izanik –‘de iure’ ere bai Auzitegi Nazionalak 2014an ebatzi zuen autoaz geroztik–, ahalegindu dadila behar adina Saharako Herriak bere autodeterminazio eskubidea erabil dezan erreferendumaren bidez.

Espainiako Gobernuaren aldebakarreko erabaki berri hau ez da jarrera sinesgarria, ezta errealista ere, izaera politikoko gatazka hau konpontzeko.

Horiek horrela:

- Tolosako Udalak erabat arbuaitzen du Espainiako Gobernuko agintariak Mendebaldeko Saharako gatazka politikoaren inguruan jarrera errotik aldatu izana, historian inoiz ez bezala. Aldaketa honek esan nahi du Marokok Mendebaldeko Sahara erabat bereganatzeko dituen asmo eta anbizioekin bat egiten duela Espainiako Gobernuak.*
- Tolosako Udalaren ustez, Espainiako Gobernuaren azken jarrera honek erabat urratzen ditu Nazioarteko Zuzenbidea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta baloreak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak, irtenbide politiko bidezko eta iraunkorra aldarrikatzen baitute, alde bien artean adostua eta Saharako Herriaren borondatea askatasun osoz adierazteko eskubidea gauzatzu amaitu beharko litzatekeena.*
- Tolosako Udalak eskatzen die Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari berari EBko Justizia Auzitegiak emandako ebazpenak errespetatzeko. Ebazpen horien arabera, Mendebaldeko Saharako era guztietako baliabide naturalak Saharako Herriari dagozkio eta, haren baimenik gabe, ezin ditu inork erabili.*
- Tolosako Udalak inplikaturako alde guztiei eskatzen die uko egiteko probokaziozko edo indarrezko edozein ekintzari; eta konpromisoa hartzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesuarekin jarraitzeko, Mendebaldeko Saharan Erreferendumerako Nazio Batuen Misioarekin (MINURSO) hitzartutako akordioak erabat errespetatuz.*
- Tolosako Udalak bere lurraldea okupatuta duen herriaren tragedia aitortzen du; baita basamortuan bizirautea lortzen duten errefuxiatuena ere. Ondorioz, Tolosako Udalak berresten du eta dei egiten die herritarrei Mendebaldeko Saharako eta Tinduf-eko kanpamentuetako egoera humanitarioa hobetzeko laguntza eskaintzen jarraitzeko.”*



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Abstentzia: Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du Mendebaldeko Saharari buruzko mozioa.

13. UKRAINARI BURUZKO MOZIOAK.

- EAJ-PNV eta PSE-PSOE-EE talde politikoaren mozioa, Vladimir Putinek Ukrainaren aurka egindako eraso arbuiatzeko.

Mozioak honela dio:

"2022ko otsailaren 24ean, Vladimir Putin Errusiako presidentek Ukrainaren aurkako operazio militarra agindu du.

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, herrialdearen ekialdeko hiri batzuei eraso egin diete eta Kiev hiriburuan ere leherketak entzun dira. Errusiako indarrek muga zeharkatu dute herrialdeko beste toki batzuetan.

Ukrainako Barne Ministerioak jakinarazi duenez, tropa errusiarrak Odessa portu-hirian lurreratu dira, eta hainbat tokitatik ari dira erasotzen, Krimeako Ukrainako penintsulatik barne. Krimeako penintsula 2014an anexionatu zen legez kanpo, eta erasoaldia Errusiatik zein Bielorrusiatik abiatu da.

Gerra hotza amaitu zenetik gatazkarik larriena izan den aldebakarreko eraso horren aurrean, Europar Batasunaren egonkortasuna, nazioarteko ordena eta bakea arriskuan jarri nahi baititu:

Udal honek:

- 1. Estatu subirano baten aurkako gerra-egintza hauen aurrean bere arbuio sakonena erakusten du.*
- 2. Vladimir Putini inbasioa berehala eteteko eta tropa guztiak Errusiara itzultzeko eskatzen dio.*
- 3. Erabateko babesa ematen die Europar Batasunak eta Estatu kideek erabakitako ekimen eta ekintza guztiei, eta bide horretatik jarrai dezaten eskatzen die,*



Ukrainari ahalik eta gehien laguntzeko eta gerra-erasoaren amaiera lehenbailehen lortzeko, hala nola indar inbaditzaile guztiak Errusiara itzultzeko.

- 4. Diplomaziara itzultzeko eskatzen du, Bakea berrezartzeko eta ondorio suntsitzaile gehiago saihesteko.*
- 5. EBri eta nazioarteko komunitateari Ukrainarako finantza-laguntza eta laguntza humanitarioa emateko eskintzen die."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du Vladimir Putinek Ukrainaren aurka egindako eraso arbuizatzeko EAJ-PNV eta PSOE-PSE-EE talde politikoek aurkeztu duten mozioa.

- EHBILDU talde politikoak UKRAINAKO GERRARI BURUZ aurkeztutako mozioa.

Mozioak honela dio:

"ZIOA

Errusiako Gobernuak Ukraina erasotzeko eta inbaditzeko hartutako erabakiaren ondorioz, joan den hilabetetik milaka pertsona hil dira, ehundaka zauritu, eta millioika alde egiten ari dira, bonbetatik ihesi.

Errusiako Gobernuaren oldarraldia justifikaziorik gabeko eraso da, inoiz ez bezalako larritasuna duena, eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa nabarmena, segurtasun globala eta egonkortasuna arriskuan jartzen dituena.

Horregatik guztiagatik, Tolosako Udalak honako hau onartu du:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1. Tolosako Udalak irmotasun osoz arbuizaten ditu Errusiako Federazioak Ukrainan egindako ekintza militarrik, nazioarteko zuzenbidearen urraketa larria dakartenak. Justifikaziorik gabeko eraso da, eta Europako segurtasuna eta egonkortasuna ahultzen du.



2. Tolosako Udalak borrokak berehala gelditzeko eskatzen du, eta armada errusiarra Ukrainatik erabat erretiratzeko. Ukrainaren subiranotasuna eta lurralde-osotasuna erabat babesten eta errespetatzen ditu eta deia egiten dio Minskeko akordioetara itzultzeko.

3. Tolosako Udalak Ukrainari eta hango herriari erabateko elkartasuna eta estimua adierazten die. Bizien galera deitoratzen du, eta atsekabe sakona agertzen du, biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduarengatik. Sentimendu hori Tolosan bizi den komunitate ukrainarrari ere helarazi nahi dio.

4. Tolosako Udalak Europar Batasunari eskatzen dio beharrezko laguntza finantziarioa eta humanitarioa eskaintzeko Ukrainari eta Ukrainako herriari, nazioarteko komunitate osoarekin koordinatuta. Larrialdiko erantzun humanitarioan ahaleginak areagotzeko eskatzen du. Errusiarri gogorazten dio nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko betebeharra.

5. Europar Batasunari, Estatu espainiarrari eta Eusko Jauarlaritzari eskatzen die, ahalik eta azkarren antolatzeko, eraso militar hori eragiten ari den errefuxiatuak ahalik eta baldintzarik onenetan hartzeko. Eta agintari eskudunen esku jartzen Tolosako Udalak dituen baliabideak behar izanez gero Ukrainatik iristen diren errefuxiatu horiei harrera emateko.

6. Tolosako Udalak irrimo eskatzen dio Errusiako Federazioari, nazioarteko legedia errespetatzeko, armak baztertzeko eta bide diplomatikoetara itzultzeko.

7. Tolosako Udalak Europar Batasunari eskatzen dio ahalegin handiagoa egin dezala kudeaketa diplomatikoen bidez deseskalatzea bultzatzeko eta bakeari eusteko.

8. Tolosako Udalak Larrialdi Humanitariorako dirulaguntza bat onartzeko konpromisoa hartzen du.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe.

Abstentzioa: Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzaren bozketan berdinketa eman ondoren, mozioa bigarren aldiz bozkatu dute, eta Udalbatzaren bozketa honako hau izan da:



Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz ez du onartu EHBILDU udal taldeak Ukrainako gerrari buruz aurkeztu duen mozioa.

14.MUGI-TARIFA SISTEMARI BURUZKO MOZIOA.

Moziok honela dio:

MUGIREN TARIFA EREDUA BABESTU ETA SUSTATZEARI ETA MUGI SISTEMAREN TARIFAK SOZIAL ETA EKONOMIKOAGOAK IZATEKO NEURRIAK HARTZEARI BURUZKO MOZIOA

2013tik, MUGI tarifa sistema Gipuzkoako tarifa eredia da. Orduan sortu zen, eta Gipuzkoako indar politiko gehientsuenen babesa du, baita garraio publikoaren gaineko eskumena duten eta MUGI sistemaren barruan dauden erakundeena ere. MUGIren tarifa ereduari esker, sistema ekologiko, sozial eta demokratikoa da gure garraio publikoaren eredia. MUGIren tarifa eredia Gipuzkoako herritar guztien batasunerako eta kohesiorako elementua da, eta aurrekaririk gabeko adostasuna lortu du alderdi politikoaren artean, Gipuzkoako herritarren mugikortasunerako funtsezko eskubidea bermatzen duen zerbitzu publiko baten eredu den aldetik. Tolosako Udala eta bere indar politiko gehienak adostasun eta babes horren parte dira, sistema eratu zenetik.

Esan bezala, MUGIren tarifa eredia 2013an jarri zen martxan. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak kudeatzen du, eta Euskadiko, Espainiako eta Europako txartel integral bakarra da; izan ere, 2013. urtetik aurrera, Gipuzkoako garraio operadore publiko guztiak garraio publikoa planifikatu eta koordinatzeko organo bakar horretan integratzen joan dira, eta gure tarifa ereduaren bereizgarri nagusia ere jarri dute martxan: tarifak integratzeko sistema eta, haren ildotik, gure garraio txartela, MUGI TXARTELA, zeinak gure tarifa eredia ahalduz duen.

Esan bezala, garraibide guzti-guztiak konprometitu dira tarifa eredu bakarrarekin: errepideko garraio publikoko zerbitzu guztiak, bai hiriartekoak (Lurraldebus eta ibilbide luzekoak), bai hiri barrukoak (Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati eta Tolosakoak), eta trenbideko garraibide publikoak (Euskotren eta Renfe Aldiriak).

Gipuzkoan, tolosarrok eta gainerako gipuzkoarrok garraibide guztietan bidaiatzen dugu txartel bakarrarekin, eta, gure tarifa eredian mugarik nahi ez dugunez, Araba osoan ere erabil dezakegu, eta, laster, baita Bizkaian ere. Gipuzkoako jende asko bizi da bertan, dela



ikasketengatik, dela lanagatik, eta beste askok Lurraldebusekin bidaiatzen dute hara, egunero, arrazoi berberengatik. Bada, batzuek eta besteek MUGI erabili nahi dute garraibide masibo horretan.

Gipuzkoako tarifa ereduaren erabilera hedatu izana MUGIren erabiltzaileen komunitatea Gipuzkoako biztanleen ia % 80 delako izan da posible. Horrela, tarifen integrazioari esker, ekologikoa ez ezik eredu sozial eta bidezkoa ere izateko baldintza guztiak betetzen dituen tarifa eredu bakarra da MUGI.

Ezaugarri hauek ditu MUGIren tarifa ereduak:

- Nork erabiltzen duena bakarrik ordaintzen du.*
- Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gutxiago ordaintzen da.*
- Ekitatea bermatzen da, babes sozialaren premiarik handiena duten kolektiboek hobari handiak baitituzte: adinekoek, gazteek, langabeek, baliabide gutxikoek eta gaitasun bereziak dituztenek.*

MUGI tarifa ereduaren bidez, nahi den lekura bidaiatu daiteke, nahi bezala, nor non bizi den eta zer baliabide dituen gorabehera. Mugi tarifa ereduari esker, gutxien dutenak ez dira gelditzen gizarte aurrerapenetik baztertuta.

Garraio publikoaren erabiltzaile arruntek dakitenez, MUGIrekin, zenbat eta bidaiari gehiago egin, orduan eta merkeagoak dira bidaiak.

Tolosan, MUGI KOMUNITATEKO kide izan nahi dugu, tarifa merke eta sozialekin Gipuzkoako garraio publikoaren eredu sozialean parte hartuz.

COVID-19 pandemiaren osteko krisialdi betean, tentsio sozial eta ekonomikoak gutxien dutenei sufriarazten ari dela, gobernuen ekonomia eta, batez ere, Tolosako eta Gipuzkoako emakume, gizon eta familiena aztoratzen ari dela, MUGI sistema babesten jarraitu nahi dugu, eta garraio publikoaren erabiltzaileei lasaitasuna eman. Gainera, uste dugu MUGI SISTEMAREN tarifen ekitate eta justizian are gehiago sakontzeko garaia iritsi dela, familien ekonomiak ito edo estutu ditzaketan une zailetan baikaude.

Horregatik, tarifak are sozialagoak eta, beraz, are progresiboagoak izatearen alde gaude. Alde horretatik, uste dugu aurten MUGIko tarifen inguruko eztabaida eta erabakiak hartzeko unea izango dela, helburu hori lortzeko bidean MUGI tarifa ereduaren beste urrats bat emateko unea.

Tolosako Udalaren ustez, garraio publikoko sistema inoiz baino gehiago indartzeko unea da, argi eta garbi, baita sistemak pandemian galdu dituen erabiltzaileak berreskuratzeko eta erabiltzaile berriak erakartzeko unea ere, eta, horretarako, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak osatzen duten administrazioek beharrezkoak diren neurri guztiak aztertu beharko lituzkete. Izan ere, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eginkizuna gizartean eta lurralde historikoan mugikortasun irigarria eta kalitatekoa bultzatzea da, eta egungo eta etorkizuneko eskaerei erantzutea.

Horregatik guztiagatik, mozio hau sinatzen duten udal taldeek erabaki hau hartzea proposatzen diote Tolosako Udalbatzari:



Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari honako neurri hauek eskatzea, tarifak berritzeko unean eztabaidatu eta, hala badagokio, onar ditzan:

A) Garraio publikoaren erabiltzaile ohikoenei kostua modu eraginkorrean jaisten laguntzeko.

- Tarifan balizko jaitsieraren eta horrek izan ditzakeen ondorioen azterketa adostea, eta, hori ikusita, gutxienez hurrengo bi ekitaldietan tarifan prezioei eustea ezartzea, garraio publikoaren erabiltzaileek beren soldatekin aurre egin ez diezaieten energiaren eta erregaiaren igoera eragin duten krisiei eta Gipuzkoako gizarteari eragiten dion inflazio handiari.

- MUGIren deskontu-sistemaren aldaketa onartzea, haren progresibitatean eta justizia sozialean sakontzeko, laugarren tarte bat barne; horrek MUGIren erabiltzaileei doakotasun handiagoa emango die MUGI txartelaren erabilera-tarte guztietan.

B) MUGI sistemaren tarifa-ereduaren gizarte-misioan aurrera egitea, bereziki kalteberak diren kolektibo berriak sartuta.

D) Tolosako Udalak Gipuzkoako garraio-sisteman zerbitzu guztiak berreskuratzearen aldeko apustua egiten du, baita erabiltzaileak gutxitzearen edo beste edozein erabakiren ondorioz arriskuan egon direnak ere, eta RENFEko aldirietako zerbitzuan ematen ari den egoera arintzen lagunduko duten neurriak aztertzearen alde egiten du.

E) Tolosako Udalak Gipuzkoako Garraio Agintaritzari eskatzen dio bere garraio-eskaintza zabal dezala, erabiltzaile guztien eskariei erantzuteko behar den beste.

F) Horrek guztiak Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa-sistemaren kostuak handitzea ekar dezakeela jakinik, Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Errepideen Foru Sareko bidesari lotutako zatietan bildutakoaren zati bat itzul dezala, eta martxoaren 29ko 1/2011 Foru Arauaren Bigarren Xedapen Gehigarria aktiba dezala, haren zazpigarren tituluko garraioari buruzko Foru Dekretuaren bidez.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe



Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du MUGIren tarifa eredia babesteari eta sustatzeari eta MUGI sistemaren tarifak sozialagoak eta ekonomikoagoak izateko neurriak hartzeari buruzko mozioa.

Udal idazkariak azaldu du gai zerrendatik kanpo bi mozio aurkeztu direla finantza erakundeetako zerbitzuaren ingurukoak, bata, EHBILDUK aurkeztua, zeina Tolosako pentsiodunen taldeek sustatu baitu, eta bestea, EAJ-PNV taldeak aurkeztutakoa, baina horrek eskatzen duela aurretik premiatasuna berrestea.

Alkateak adierazi duenez, ez dute denbora gehiegirik izan mozio horiek aztertzeko, baina ez dute gaia aurkeztu gabe utzi nahi, baizik eta mahai gainean utzi nahi dute. Eskatu du jasota gera dadila gaia mahai gainean uzten dela, saiakera egin nahi delako ea adostasun batera iristen diren hiru taldeak.

Beraz, gaia mahai gainean uzteko proposamena bozkatu dute, eta Udalbatzak, aho batez, erabaki du gaia mahai gainean uztea.

15. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 21:45ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatu dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O. e.

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IPLE0003-2022-03-31 Ohiko osoko bilkurako akta/2022-03-31 Ohiko